

"PRINCIPE E VIANA"


SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA


DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Pamplona - Junio - Julio 1966

DIRECTOR: J. E. URANGA



"SANPERMIÑAK"



Mundu zabalean

Desde nuestro número anterior han ocurrido los siguientes acontecimientos importantes:

Los americanos logran situar en la Luna un aparato (el Surveyor) que envía a la Tierra fotografías de gran detalle que facilitarán en el futuro la llegada de vehículos tripulados.

El General De Gaulle hace una importante visita a Rusia, la cual se considera como un acercamiento de aquel país con Europa Occidental. Rusia es el Estado principal de la Unión Soviética cuya extensión es 40 veces la de España y su población unas 8 veces mayor que la nuestra.

Francia, como es sabido, ha aumentado mucho su prestigio y su desarrollo económico y militar y el General De Gaulle desea que Francia encabece la futura unión de todas las naciones de Europa, disminuyendo la influencia de los Estados Unidos.

Los Estados Unidos continúan con gran violencia la guerra en el Viet-Nam, donde al parecer se notan signos de cansancio en los comunistas. Ultimamente hay esperanzas de que se haga la paz manteniéndose la intendencia del Viet-Nam del Sur y librando así al Sur de Asia del peligro comunista.

En la Argentina un golpe de Estado militar derroba al Gobierno. Argentina padece una gran inestabilidad económica y social. Su extensión es cinco veces la de España y su población es como dos terceras partes que la española. Argentina es un país muy rico en agricultura y ganadería, pero sus recursos minerales no son grandes por ahora y su industria está poco desarrollada.

Como dato trágicamente curioso: En Chicago, durante el fin de semana último y con ocasión de celebrarse la fiesta de la Independencia Americana, hubo 1.000 muertos entre accidentes de tráfico, de aviación, ahogados, etc... El progreso material tiene también sus graves inconvenientes cuando no progresa a la vez la prudencia.

Amerikanoek ilargian tresna baliok bat ezarri dute; poliki poliki jetxiazi dutela esan nahi dugu. Ango iduri eta argazkiak bialdu ditu. Jendea bialtzeko aurrerabide aundia eman du.

Frantziako lendarikari De Gaulle, Rusian barna ibilia dugu. Sarraldeko gizonak ikusi etzituztenak erakutsi dizkiote. Aundizki artu dute. Rusia, berrogei España ainbat bada. Jendez, zortzi aldiz geiago.

Frantzia goratzen dioa. Sos-konduan eta militargoan Europa bakartu baten buru egin nahi luke De Gaullek. Amerikanoen lokarria asketuko lehenik.

Ipar Ameriketarako gogorki darama Viet-Nam'eko gudua. Badirudi komunistak aspertzen asiak direla. Azken ontara, pakeak egin nahi lituzketela ere esaten da. Behereko Viet-Nam bere buruaren jaun ta jabe uztea, gorrien itzala Asia zolatik kentzea izango litzake.

Arjentinan aspaldian gaizki dabilta. Armada nagusitu da orakoan, lengo gobernuak zapalduz. España baño bost aldiz aundiago da eta gure irutatik bat baizik ez dira an bizi direnak. Nekazalgo eta abere onak dituzte. Industri gutxi eta mina eskasak.

Ongi bizitzeak ere baditu bere arriskuak. Chikago'n beren Askatasunaren urteburua amerikanoek ospatzen duten festan milla jende il dira aurtan. Batzuk airean, besteak ibaietan eta geienak bideberrian. Zer erokeria. Gure erriko zahar batetek ziona: ez da munduan gerra beharrik.

Españako berriak



Azkenean Jibaltarrez izketatzeko eskutara etorri dela badirudi Inglaterrak. Ango jendien eskubideak ez dituela zapalduko dio España gobernuak.

Frankok Kataluña aldean egonaldia bat egin du. Barzelonan bildu dira bere Gobernuko gizonak eta diru solasa zuten, naski. Diru kontuan geroari begiratzeko omen da eta jendea ortan sayatu dedin, lege berri bat ateratzekoak dira. Diruta bizitegiak izango omen dira lege orren oñarria.

Mail goratzeko lanbidean (Desarrollo Económico, erdaraz), industria eta ikas gauzetan ongi balin bagoz ere, nekazalgoan ez dugu batera aurreratu.

Eguneroko langil saria 130 pezeta gutxienez beharko litzakela esaten dute. Ala eskatu da.

Inglaterra está dispuesta a reanudar las conversaciones sobre Gibraltar.

S. E. el Generalísimo visita Cataluña y se celebra en Barcelona un Consejo de Ministros dedicado principalmente a asuntos económicos. Se anuncia una Ley muy importante para proteger y estimular el ahorro. Una de las principales medidas de esta futura Ley es el sistema llamado de Ahorro-Vivienda cuyo alcance explicaremos en el momento oportuno.


El Ministro de Desarrollo Económico da los datos más importantes. Se ve que España está dando un gran salto en Industria y en Educación. Más retrasada está la solución de los problemas de la Agricultura.

Ultimamente se presentó oficialmente la petición de que el salario mínimo sea de 130 pesetas diarias.

Iruña zaharrak eta Bidasoko Lesakako erri ederrak San Permin daukate Zaindaritzat. Uztaillaren 7 egunean Iruñen munduko bestarrik ezagun eta famatuak asi ziren.

Ala Bidasoko Iri politan, nola Nafarroako Urriburuan «mezetak» alaiak izan dira. Yende asko bildu da Lesakako eta Iruñeko bestak alaiak eta atsegiñez gurekin pasatzeko. Gure Zaindari goresgarriak zuzendu, eta begira dezala gure Nafarroako Lurralde maitea.

"Euskal ikasgaien Akademia" delakoan Zuberoko Jauregiberry andrearen sarrera



Iruñeko «Euskalerraren Adiskideak» Elkartearen «Euskal Ikasgaien Akademia»-k Zuberoko Euskal Lurralde anaiaren ordezkotzat Jauregiberry Andrea «Laguna» izendatu zuen.

Joan den Garagarrillaren laugarrenean Iruñeko «Iru Erregeak» Hotelean Jauregiberry Andrearen Akademia ontan sartzeko itzaldia izan zen. Bere itzaldia, obeago esateko, bere leziua, bere irakasteko itzak, Zuberoko euskalkia gaitzat izan zuen, eta oso yakingarria entzule guzietatik gertatu zitzairen.

Jauregiberry Andrea, Zuberotar izkeraz idazlari aundiospetsu, iaio, eta otsaundikoa da. Euskalerreri eta Atzerrietako agerkari eta aldizkari auziek bere Euskalerreri lurrei eta gizasemei buruzko izkribu lanak argitaratu dituzte.

Bereziki Euskal izkerak aztertu eta landu ditu; Zuberoko mitzaera eta beste Euskalerreri euskal-izkerak ikustatu eta ikertu ditu.

Bere sarrera-itzaldian Zuberotar

Euskaldun, lotsadun ote?

Orain dela illabete bat entzun nuen euskal esaera zar auxe: «Euskaldun, fededun», edo Aralarako Mikel Goiaingeruari kantatzen diogun bezela: «...euskaldunik ezta federik gabe». Eta apez, praille, monja, mi-xiolari eta gai au ukitzen dute guz-tiek, beldurrik gabe egia dela diote. Egia izan bedi bada esaera orixe.

Baño nik zerbait nere gogoan, nere buruan oso sartua badaukat; aizkorak egur ezearen biotza aizkorakada-aizkorakada zulatzen eta ebakitzen duen bezelaxe, nere gogoa ere zulatu du bein eta beste bein, eta onela askotan egite mingarri onetxek: «Euskaldun, lotsadun». Zer esan nai dudana esaera onetxekin? Ahal dudana garbiena itzegingo dut, uste dudana esanaz, naiz oso atsegingarri ez izan guretzat.

Begira: Ni gaztea naiz oraindik, urtez eta ustez, bizitzako ilusioa esnatu baitzait, eta esaten denez ilusioa gaztetasunaren eta zartzaroren muga omen da. Baño naiz gazte izan eta urte askotarako bizia itxaro izan, Jainkoak nai badu, gauza auxe oso ongi ikusi dut bein eta mila aldiz, eta ikusten dudana aldioro nere baitan nabaritzen dudana miñ, illuntasun argitu ezin auxe: aizkolariek ebakitzen dituzten egurrak min artu balezakete egur oien oi eta oñaze mintsua baño askoz aundi eta nagargarriagoa izango litzake; ez dut gezurrik esan edo nere iritzia aunditu nai, ez! Auxe da nere gauza: Zenbat eta zenbat aldiz ezditut ikusi gizon eta emakume, zar eta gazte batez ere, Euskalerreri jaio eta aizi izandu direla euskeraz mintzatzeaz lotsatu; euskaldun diranik galdetu ezkeroz, buru makur, abots gutxiek, gorputze kixkururik, begiak gora jasotzera ausartu gabe, er-

mintzaeraren desberdintasunaz, musikaldadeaz aditz-yokaeraz..., abilki eta yakinduriz jardun zuen.

Klaberia Jaunak, Akademiaren partez, Euskal-Iberismoaz itzegin zigun; argi eta garbiki «Euskal-Iberismoa»-ren kontra ari izan zitzaigun.

Azkenean Akademiaren ezaugarriak Jauregiberry Andreari «Euskal Ikasgaien» Akademiaren Buruak ezarraziz zizkion.

daldunak baño gutxiago direla ustez, Euskalerreri jaio direlako damaturik. Zer naigabe! Beren jaiotze-lurraz, etxeaz, izkuntzaz, kulturaz, oituraz eta beste jakite guzietaz damutu dira; gauz guzi auetaz ahaztu nai dira, beren aurrekoen lanak eta gauz guziak sutara, leiotik bera urrutiratu nai dituzte, eta ez dute geiago jakin nai.

Nor aitortzen da «gizon», eta au ikustean, geldirik, deus gertatu ez-palitz bezela gelditzen da? Eta batez ere gazte bat. Gazte zerala aitortzen duzu eta zerorrek ikusi eta egiten gauz ori berbera?


Nola diteke ori? Gazte al zera? Eta nun duzu zure gazte-endar, barneko sua, makur guziak zuzentzeko? Nik ikusi eta entzun dudanez, munduan «salbajeak», zibilizatu gabeak, baso eta oianetan beste gizonengatik urrun bizi direnak eta euskaldun batzuek bakarrik, gutxi-estima, mezpreatzen omen dituzte bere izkuntza eta beste gauzak. Pentsatu bearra dago gaur Euskalerreri gertatzen diren gauzetaz. Ainsteste euskaldun, eta erderaz mintzatzen! Zenbat oitura garbi eta politak atzeratzen ari diran!

Euskaldunak, euskeraz mintzatzeko geranok euskeraren etsairik aundienak omen gera; euskaldun artean ala gerta diteke. Zenbatzuk beste edozein izkuntzaz mintzatu naiago dutel!

Makur-zirikatzaille asko badaude erdeldunen artean, guk oiei entzuten diegu, eta euskaldun zintzoei berriz askotan ez. Beste egun batez jarraituko dut gai onekin.

Bukatzeko, auxe esango nuke: Euskaldunak esnatu, iratzarri gaitzen gure lozorrotik. Alegein guziak egin euskal-kontzientzi bizi erdiesteke; euskaldun izateaz ez lotsatu, euskaldun izatearengatik urkullo sandu bat izan baizik; edozein toki eta garaian esan beti arpegi jasoarekin eta abotx garbiz: Euskalduna naiz, eta il arte olaxe izango ere!

«ITXAS-ERTZ»



ELIZAREN ITZA

ELIZAREN BATASUNA

Kristau guziak batera bilduazteko alegiñak egitea da Batikano II naren bere gain artu duen lanbide nagusienetako bat, Xristo Jaunak jasotako eliza bakarra baita, asko izan arren, Kristoren egizko ondarea edo buruzpidea gizonen erakusten dien kristau elkargoak; denak Jaunaren jarraile jotzen dute bere burua, ezdira ordea berdieñak deramatziten bideak, ez eta ere Kristoren egia, oien artean oien bitartean Kristo bide, egi eta bizitz bat izanki, bat bakarra alegia.

Berezkuntza oik ez ditu inñolaz ere nai Kristok, munduaren aztabobide, ta Ebangelioaren zabalkunderako eragozpen gogorrek dituzu.

Gaur-gaur bezela Kristauok iru sail aunditan berexirik gaude, Jacio-ren denboran (861-886) asi zan sorkaldeko griego ta bizantino rusoen bereskuntza ta erabat autsi zan Migel Berulario. Constanti-noplako Patriarkaren denboran (1054), Eliza erdibututa gelditu zan, eta gaur oraindik ala jarraitzen du. Ortodoxo izenarekin ezagutzen diranak, Grezia, Bulgaria, Errusiako 200 milioitik gora dira. Erromatiko Aita Sanduaren mendetik aterata, sinisgai geientsuenak gureak berak dauzkete: Kredoa bera, zazpi sakramentuak, Andre Mariarenganako joera, otoitz berberak; alderik aundiena: Eleizaren joskera. Aita Sandua, Pedro Apostoluaren ondoreko bezela Eleiz guziaren buru, Kristoren ordezkoa lurrean, denen agintarritza, artzai ta ari dena, Eliz guzien kezka ta ardura, batasunaren maitasunean, egian, irunarazteko.

HERIOTZE

Garagarrillaren 22'an Erratzu'ko errian Yaunaren besoetan azken atsa emanik, gure adiskide ta Apez Yaun Blas Fagoasa zerura yoan zaion. Iruñeko Seminarioko Erakasle zen Erratzu'ko Etxebeltzeko semea, duela 69 urte sortua. Goian bego, Baztandarrak euskalzale zintzo bat galdu dugu euskal gaietan yakintsua inñor ez bezalakoa eta gure erakale on izana. Euskal gramatikari ona, berboa edo aditza ongi erabiltzen zakiena eta Seminarioko apezgaiet eskuara erakusten zabena. Apez euskaldun berriek arenanik ikasia ezta neguririk izan, lan aipagarria bai zinez.

1920 garrenge urtean lendabiz'ko Meza eman zuen eta apez berri egin ondorean Lesaka'ko errian egon omen zen, baina an denbora gutti iraganik bereala Seminarioko Erakasle egin zuten eta gerotik eta orai artio Seminarioan egona da.

1933 garren urtean «Euskeraren Adiskideak» deitzen zen batasunak eratutako Olerki sariketa batean

lendabiziko Saria ardieñi zuen. Olerki oiek eztagigu argitaratu ote zituzten, eztagu oien berririk, baina olerki oiek bai merexi lukekela argitaratzea euskalzale guziek eskuara ura dastatu zezaten. tamalgaria litzake olerki oiek ez kutuan egotea. Erdarazko lanak ere egin zituen eta gai o'etan dabiltzen yakintsuek, Blas Yaunaren idazkiak aunitz gorensten dituzte.

Baztandar ta Nafartar eskualdun guziok naigabeturik gaude egiazko euskalzale bat galdu dugulakotz, baina emen gelditzen garenok il arte jarraituko dugu berak erakutsitako bidetik.

Mezetan mundu bat yende bildu zen, Baztan-Bidaso'ko apez geientsuenak an ziren eta bai Seminarioko erakasle guziak ere. Elizkizun hunkigarria izan da, Meza ta otoitz guziak oso osorik eskuaraz eginik.

Gure doluminak familiari eta otoitz bat arimaren alde. Yainkoak eman dezaiola betiko atsedena.

MILAKOTXU

Milakotxu urdindarra izaten zen. Ase baño gose geyago ikusi zuen bere denboran. Ogi zuria aberatsen gauza baizen, naskia jaten zuen Milakotxuk. Artiriñez egindako ogi buruandui bati esaten zioten naskia; pobrien janaria.

Ori bai; basoko berri inñor baño obeki zekien; beti an zebillen! Nik uste, beko basoko axeri ta azkonar guziek ezagutzen zutela. Sokatik lotuta ekartzen zituen, txakurrak bezala.

Garai artan asarre aundiak izaten ziren aldameneko errien artean; beti burrukan! Altsasuk eta Urdiainek San Pedro baso-elizarengatik zituzten beren goraberak: Altsuarrak aiena zela, eta urdindarrak ebeina. Izatez ere, elizaren erditik dijoa bi errien muga. Sarrera Altsasukotik du; eta Urdingoan aldarea.

Atal gainean badu arri marratu bat, Nafarroko lenbiziko erregea an egin zutela esaten duena. Ala bada, ezpada, istillu aundiko ermita izan da beti San Pedro.

Egun batez, Altsasuk alkateak etorri izan behar zuen Urdiaina, mu-

garria lekuz aldaturik zegola esanez. Testigu bat da emen zuen berekin. Urdindarrak ezetz eta, besteak baietz; an ez omen zen konpontzeko biderik ikusten.

Milakotxuri otsegin zioten orduan. Gurutzearen gainean eskuak, eta denak agora begira:

—Jainkoaren izenean esan mugarri ori mugiturik dagon edo ez.

—Ez! —esan zuen Milakotxuk—. Oraindo ez duela denbora asko, orren gainian jan nuen nik naskiya; bere lekuan dago.

Naskia aditzean, bar egin omen zuen Altsasuk alkateak; baño urdindarrek irabazi kuestiyua.

Gero, Urdingo alkateak lotsaya egin zion gizajoari:

—Zuk zertako esan duzu zer jan zinuen! Esan behar zinuen jan zinuela; baño zer, ez!

Milakotxu naski jale!!

Besteak azpitik:

Ta zuek ezin, ni gabel!

SAGI


AMAIURKO IRIA



Ona emen Amaiurko iri lirain eta xarmanta. Amaiurtarrek ederketa, eta apaindurazko lanei eusten asteko dira erratan digutenez.

Beraz Nafarroko beste erri bat badugu bere nortasuna, bere lerdentasuna, bere etxe ikusgarriak edertasun, eta garbitasunez agertzeko prest.

Esker milla, Nafarroaren izenean, Amaiurko aintzindari eta bertako seme guziet.



DONOSTI'KO 1966'GO TXAPELKETARI

LESAKAKO MIKEL ARO-
ZAMENAK JARRIAK

I
Epaillaren seya zan eta
eguardiko amabiyetan
aizkora jokua izandu da
Donostiko Anoetan.
Ondo prestatzen sayatu dira
Naparru alde orretan.
Irabaziyak pozez daudeta
galdutakoak penetan.

II
Beracoetxea eta Astibia
ta Arretxe Naparrutikan,
oikin batean beste lau ere
Guipuzkuko lurretikan,
Errekalde eta Polipaso
Ceberio Ataundikan,
Beizamako Arbeldi orrek e
Eztauka inon lotsikan.

III
Amabi milla lagun bagian
danak begiz ikusiyak,
egualdiya ere ona gendun
Jaungoikoeri graziyak.
Bi napar oyeek argitu'ituzte
len dudan zauden guziyak,
etzaizkate gaizki etorriko
Donostiko irabaziyak.

IV
Amabiyak eta laurdenetan
egur gañian jarriyak,
beren jostalluk eskun artuta
zazpi aizkoralariyak
bata besteai artutzekotan
lana egiñaz naurriyak.
Danak aurretik bota zituan
Napar txapeldun berriyak.

V
Astibia gaztea orixe
Aizkoralari polita,
joaldi onak egin zituan
egur gañian jarrita.
Jendia txaloka ezin ixildu
guztik zituan merezita,
bigarren sariya eraman du
kuarteletik etorrita.

VI
Azkoitiyako Errekaldek e
zerbait nola dun merezi
egiñalak nola egin zuan
guziyok gendun ikusi,
norbaitek atzetikan biar du
danak ezinda lenbizi,
oraindikan sasoiko zaude ta
jarri zindezke nagusi.

VII
Polipaso ere ikusi gendun
lan egiteko gogotan,
beti nagusi izango danik
ezta sortuko lur ontan.
Atzera samar gelditu zian
aurren izana askotan,
zer esanikan ezta orrentzat
etzegon kondiziyotan.

VIII
Ataun aldeko Zeberio ori
izan gendun bosgarrena,
joku aurretik jendiak ziyon
izango zala azkena.
Gizon ori zan aizkora jokun
inun ikusi eznuena,
mutill txikiya izanagatik
Goyerriar pizkorrena.

IX
Sumbill aldeko Arretxe ori
izan gendun ondotikan,
bestiak bezela ura ere
sayatu zan gogotikan.
Len esan dedan Ataundarr ori
sartu zayon aurretikan,
bosgarren malla ark kendu ziyon
kolpe batzuen gantikan.

X
Lenagotikan entzuten gendun
Arbeldi orren izena,
gorputz polita dauka oso ta
aizkoralari zuzena,
or atzetikan ziñala eta
etzazu eduki pena,
aizkora eta korrika bitan
gaur zu zerade onena.

XI
Beracoetxea txapeldun zera
zertako egon izkutun,
lenago ere zure lan asko
ementxen daukagu kontun.
Ogei kana erdiko Tolosan
aixa nola moztu zitun
gorputzik asko nekatu gabe
berroita zazpi minutun.

XII
Zeñek pentsatu Beracoetxea
arren pizkorra zagonik
eta orren denbora gutxian
puskatuko zituanik.
Apustuxo bat egingo nuke
naiz pobre izan neonik.
Iana orretan ezjala mundun
gaur zu autsiko zaitunik.

AGUR XUBEROA

Jureguiberry Andrearen eskietan, Uruña-rat
xitian, bere herri moitiaz elerraiteko.

Uskaldunok uskaraz elerran bear dugu.
Zomaiten ezpainetan, apeza ¿non sortu?
Neurk ere bere amaz eztu bear alketu:
ene hiri moitia zutut, Kargaztulu.

Erriberan sorturuk, korrengatik naparra;
beino zainetan daukat odol zuberotarra.
Kanko artzainek moite Bardearen belarra,
ta kuek bihotzen sartu Iparreko beharra.

Jinkoaren graziak, haurra nintzekian,
aitzinekoen deia nik entzun barnian.
—«Ikaszak gore Uskara, hedazak ungunian,
berareki mugarik ezta gore artian».

Bortiaraino helturuk, anitx aldiz, lañoa;
buria zutik, Orhy da gidari zintzoa;
konen bazterren txerka bide zaharra doa;
lanxarra xoan-eta, kor dugu Xuberoa!

Kantik ekustan dena, bai den ekusgarri!
oihanen Larraine, urzo zuri zuri;
Santiaren budarra «Madelena» üduri.
Xuberotik norbaitek: —«Semia, xin adi!».

Izagun eta bertan nik moite dut herria:
artzain, laborari ta, bai, bertsularia;
batek erraitan deit Berterretx-en hiltia.
Eztiki sartu zaigu Xuberoa moitia.

1966-ko VI-en 4-an
URUÑAN, M. GARDE

Urte berri egunian izan zan bertso txapelketari, bertso dozen erdi bat

Naparroko beran sortu eta orain Orion
bizi dan Joakin Aldabek jarriak

1
Bedetzi puntutako
bertsotan trakets naiz.
Eziñ niteke ibilli
bide ontatik maiz.
Lantegi au zait neri
zalla ta oso gaitz.
Ez det nik, ez, baliyo
izateko apaiz.
Buru gogor arkaitz,
tertellu ni banaiz,
geniyoz txar ekaitz,
gozo gabe zurkaitz.
¡Amaitu det bertsoa
nolabait garaiz!

2
Bertsuen txapelketa
eman da aurtengua.
Ez naiz bertan izana
ni gizajua!
Urrutitik bakarrik
det nik aditua.
Bere gora berakiñ
nago txoratua.
Ainbat itz neurtua,
jator moldatua,
ongi elkartua
bazan loratua.
Eztizko ibai aretan
negon sartua.

3
Zuazkit, zu, munduz mundu
bertsok aizatzerá,
ta etorri ala brastan
erakustera.
¡Ez, ene, ez det doaik;
ez ni lan ortara.
Dar dar nago bildurrez;
nuan nire etxera,
nere gel txokora,
bakartasunera,
ixilltasunera,
illuntasunera,
sosegoz zerbait lumaz
argiraztera.

4
¡O zuek bertsolariya
derrepentekuak,
zuekiñ daude erriya
ziaro erotuak.
Jo eskubi, jo ezkerrera,
bein ere ez nastuak;
zenbat ta geigo jardun
ainbat trebetuak,
nun nai billatuak,
beti txalotuak,
gora altxatuak
ikuituz zeruak.
Euskal bertsolariya,
bai, maitatuak.

5
Au da Euskal Erriyen
bat-bat jeikiera.
Ikusten degu Eguzkia—
ren jaoiera.
Tiraizen ditu gendek
sugar beruara
Gora zagun biotzez
zoragarri Euskera.
Bere epelera,
ta bere girora,
goxotasunera,
estu laztanera,
ekarri, urbildu danak
maite lanera.

6
Lengo bertsolariya
iñoiz ez aztuak.
Orainguak zaituztet
barrun sartuak.
Gero re izango dira
aundiz sonatuak.
Denak izan zaitetzte
ongi ondratuak,
lorez koroituak,
numnai aituak,
maiz-maiz berrituak
gora auptuak.
Urre-zillar letretan
beti agertuak.

Marzel ikaskiñaren egun txuri-beltza

1
Marzel Otarte, gizon prestuak
oian zatia erosirik,
pozez marruskan dabit eskua
irabaz ona ikusirik.
Kerizu, itzel dauka lekuak:
mendiak ez du sasirik.
Egurak ere, bear alakua.
Bazeukan noiz merezirik!

2
Bere bordatik bide luzea
zagon ikaztegiara.
Emaztearentzat, zer gurutzea!
petik-gora ta gain-beral
latekoak arat burutzeak
iartzen zun beti minbera.
Senarra berriz gosez iltzea
iasateko gaitz sobera!

3
Ur bazterrean zuen gizonak
ikaztegia antolatua:
egur ta abar; zogi sakonak;
an ditu denak autatu.
Britxka ta britxkal amorrai onak
beren buruak salatu.
Orduan bertan bere Erramonak
ibil bearra salbatu!

4
Aste guziko ogi ta ardoa,
bada, irin ta koipeakin
naikoa diñat, andre gaixoa,
errek'untako arraiñekin.
Zaindu zan ongi gure aurt-xoa,
eorrek dakin gauzekin.
Aldiz ikazkin, aldiz atxoa,
konponduko naun neurekin.

5
Lotzen da pozik bere lanari;
iaun ta iabe bere ustean:
noizean bein txurrut xatoari;
txintxur idor, ke-tartean:
gozaltzekotan, koipe babari!
amorraiak, bazkaltzean!
baña emateko zartagiari,
sartu bearko urean!

6
Arrantzan ari dan bitartean,
Adanez, nola? oroitzen da.

"Adan, bakarrik, abere artean,
eritzen bada, ezin senda.
Piko ostozko atorra austean,
zer moduz iarri zerrenda?
Emakumerik ez balu aurrean,
egun gutiz, a zer "prenda"!"

7
Iainkoak ongi asmatu zuen
senarrantzat emaztea.
Oraintxe arte nik ezin nuen
iñolaz au asmatzea.
Berdin udaran, berdin neguen,
gizonak bear laguntzea.
Marzel, gauz au ez zuken buruen?
Gizajo perkal trastea!

8
Untan zabilen buru berotzen,
amorraien atzetikan:
Artan berean, oiñ bat ozen:
"Alto, Marzel!" ta geldikan,
iñora etzun iñolaz iotzen;
nai izan ere, ez alikan!
Ez zuen bada gorputza lotzen
pantaloi ta atorgatikan!

9
Ikaraturik urperatu da.
Bañan ez an ats artzerik.
Bere buruan da sortu dudu
"guarda" zan edo bertzerik...
gizonak lezake bada muda
bere mintzo truk bertzerik.
Pixkaka-pixkaka, ateratu da:
"emen ez zeok iauntzirik!"

10
Oiuka ari da egin alean
ikazkin gizagaizua:
"Lapur zikiña ari lanean...?
utzi nauk orai xautua!
Nere arropak, ik besapean;
ta ni Adan uts biurtua!
Nere Erramuna datorrenean,
entzunen diat "preikua"!"

11
Adiskidea urrikalduta
badator iauntziarekin.
Aserretikan ia baketu ta,
konpontzen dire elkarrekin.
Adiskideak sua piztuta;
baba ta amorraiekin;

Ardotik ere, bota zurrutal
ederki daude elkarrekin.

12
Baño Marzelek egun txarra du:
gaizki zeñatu dan edo...
etorri zaizko iru soldadu,
(nekez, errezatzen Kredoi
¿Quiñ ha quemadu ese arbuladu?
gallego batek galde do.
Marzel gaiztuak naiko lan badu:
"musika" artan, ez ta re "do".

13
Soldadu aiek ari zaizkio
erran ta erran, erderaz:
berak bateri erantzun dio:
"bakarrik dakit euskeraz"
Orduan unek zafratu dio
atzekoaldea uhelaz
Marzelek, nola an desafio,
nausi badire inderraz?

14
"Si no declaras vas a la cárcel"
dio irutan zarrenak.
"Ori eginik, adio Marzel!
(dio beraren barrenak)
iru oketxen bidena mazel
pasa ditzala kerrenak!
Ameka olako itsusi partzel
baditik mundu barrenak!"

15
Erramona agertzen da
ikus naiez gizona
"¡Ola, qué tal, linda prenda!"
Marzelen "etor-ona".
"Nere senarra nork senda?"
"agoratu zaiona
erotzean erratan da:
zaude ixil attona!"

16
Bearra bezalakorik,
nere emazte gaixoa,
ez duzu autetzekorik
oroitzeko lengoa.
Ikus duzu gallegorik
bidean? Arraioa!
Ark eman neri osorik
erdera ta griegoa!

Amaiurko IBARRONDOK jarriak



NAPARROAKO GAUZAK

Nekazantzan erakusteko lenbiko eskola egitekoa da gure Diputazioa Tudela ondoan, Fontellas izeneko errian. Eskola onen antxara (subasta) egun aurtan ateratzeko da. Izango ote da nekazantzan ikas nahi duen gazterik?

Iruñetik Noain aldera dihoan bideberrian egitera doatzen lanak ere jakinarazi ditu Diputazioak. Autopistaren neurria zabaldu nahi dute oraiko bidea. Egunoro bost bat mila auto omen dabil-tza.

Bideberrietako lan garrantzi-tsuena, beraz, auek dira: Iruña-Noain-Barasoain, eta Tudela-Kortes, Goitik beherako errez-kadan. Sakanan (Barrankan) egi-ten ari diren lanak, berriz, sordaldetik sarralderakoan. Aldude-koa ere ongi omen dihoan.

Sanguesa ta Korella aldean lantegi berri (fabrika) aundiak jasoko dituztela, jakinarazi di-gute.

Bertako lana ugarituz bezala ttipituz ari da Naparroko langil-len kanpora atera beharra.

T.V. Telebista dugu; T.V.E. Españako Telebista. Esan behar ezirenak esan ditu gutaz. Gure Eskubide berexiak lan aundia ematen dute bazterretan. Badiru-di borondate on pixka bat ager-tu nahi izan dutela Madril-en. gure Diputazioaren aurrean. Denborak esango du ez ezker-eskubi jokatu nahia ez ote den...


Noticias de la Diputación Foral: Se subasta la primera Escuela Agrícola que se dedicará a la hortofruticultura y se instalará en Fontellas (Tudela). Se subasta también la autopista de Pamplona a Noain ampliando la carretera actual por la que pasan diariamente más de 5.000 vehículos. Así pues las obras de carreteras más importantes que están o van a entrar en ejecución son de Pamplona a las cercanías de Barasoain, de Tudela a Cortes (eje Norte-Sur) y las de la Barranca (eje Este-Oeste). También nos dicen que adelanta la carretera de Alduides.

Ya parece seguro que unas importantes industrias se van a instalar en Sanguesa y en Corella. La emigración de los navarros ha descendido grandemente ya que las industrias están naciendo en muchos puntos de Navarra.

La preocupación existente por la conocida emisión de T.V. se resuelve favorablemente con respecto a los Fueros de Navarra.



ERRIZ-ERRI



BAZTAN

BESTAK

Sanjuanak ta Sanpedroak iraganak dire eta beren zaindarien ohoretan bestak ospatu dituzte: Arizkun, Oiaregi, Doneztebe, Labaien, Almandoz ta Erratzu'ko erriek. Urtero bezala elizkizun eedrak eginak dituzte ta yosteta ta soñuen eskasirik ezta izan, aizkora yokoa dela, pilota partidak direla, bertsolariak eta bertze ikusgarri geiago ere izan dituztela. Doneztebe'n Mitxelena ta Lazkao-Txiki ta Erratzu'n Uztapide, Lasarte ta Xalbador arizanak dire bertsoaldi ederrak eginek yendea bozkariotan ezarri zutelarik. Baztan-Bidaso'ko euskaldun yendeak maite ditu bertsolariak eta arrazoñarekin, ortan dastatzen baitugu eskuararen lorea eta gure mintzaira ezta kienak dastatu ezin dezakena. Euskaldun errietako bestetan ez lizeke ikusgarririk egin bear bertsolariarik gabe.

Aipatu ditugun erri oietako bestak, bake ta elkartasun onean igaro dire eta yendea ere gorki kontent.

IZETA



ARALAR

FESTA BERRI ARALAR'EN

Euria, euria ta euria. Orrela argitu zakigun aurtengo Festa Berri edo Corpus Christi eguna Aralar mendian.

Argitu zala esan dut, baño etzan ainbestekoa izandu, ez baitzigun iruzkiak begi ñika bat ere egin egun osoan.

A zer burubidea! Sekula baño jende geiago etorri zan San Migel era bide berriaren erretasuna dala ta. Eun bat autobus ta auto txikiak millaka omen ziran. Zenbatsu jende? Amar milla? Baliteke geiago ere izatea, ta ainbesteko jendeketarekin gorano irixtea nai ta nai ez zailla izan bear zun. Diputazioiko bidezaiak bazuketen lanik aski auto ibai ura bere bide-tik eramanazi naiz. Arritzekoa da geiagoko itxipirik ez gertatzea. Aralar'ko Aingeruak bere babégoak zabaldu zitun nunbait, ainbesteko nasketa artan makurrik batere gerta etzedin.

San Migel'go elizak eta sukaldeak eta zokoak etziran aski orrelako ostea artzeko, ta baztar guzitan jendea estu-estu arkitzen zan xardiñ zarrak kutxan bezela.

Aldez edo moldez, eguna joan zan beintzat; baño urteroko beila edo prozesioa etzan atera, jendearen pena aundiarekin.

Zortzi mezetan eliza mukuru beterik arkitu zan, ta jende asko urbildu Mai Santura jaiera edo deboziarik aundienarekin Jauna arzera. Etzan bada eguna alferrik galdu.

Bide berri onek problema ta buruaste asko ekarri bear ditu ta au izandu da lenbizikoa.

Aurten ikusi eta ikasi danarekin datorren urteko Festa Berri eguna otea izango al da!

"ARALAR'EN ARTZAIA"

GOIZUETA

Urteoro bezala Aralar'ko Goi-Aingeruak bere ikustaldia egin digu aurten ere. Goizueta Migel Goi-Aingeruari dion maitasuna ez da nolanaikoa. Egun ortan aur txikiak amen besoetan eta agure eta amon xaarrak or etorri oi dira Migel Santuari beren maitasuna agertzera. Migel Santuaren aurrean ateratzeko meza bat edo geiago ema-

ten ez dituzten pamilli gutxi izango dira bakarrik baldin bada. Beti bezala, emen ogei ta lau ordu igaro ondorean, Ezkurrara joan zitzaigun. Agur Migel Goi Aingerua eta zaitu Euskalerrria!

Egun auetan Eliza berritzen astekoak gera. Errian, bakoitzak dezaken ainbatean bere diru-laguntza eman du eta auzo-lanean lan egiteko ere prest dago. Entzun dugunez mutil gazteak, "altabozak" jartzeko asmotan izan bear dute. Bejoandaiela eta olako borondate onak irauñ dezaiela!

Joan den Salbatore egunez (Asensio egunez) berrogei nexka-mutikoren lenengo Jaunartzea izan gendun. Poz-pez beteta, nexka-mutiko oiek lenengo aldiz Jaunartzen ikusteak poz ematen zuan. Oiekin batean beste berreun inguru nexka mutikok ere Jaunartu zuten. Zorionak deneri eta bide ortatik jarrai dezatela.

Eskola-garaian bukaera dalata, eskolako nexka mutikok, Ondarrua eta itxas-ertzeko errietara ibilaldi bat egingo dute. Bidekoa irutetik bat erriak ordaintzen du eta gañerakoa umeak berak. Eskola-garaian dauden nexka-mutikok, berreun ta berrogei ta amar inguru dira Goizuetan. Egun ona ta alai igaro dezatela.

LAKUNTZA

LAKUNTZAN BERTSOLARIAK

Lakuntzan egin zen, garagarri-laren 19'an, Naparroko bertsolarien bigarren sayoa. Aurtengo txapelketarako onartuak izan dira, an ziren lauak. Norbaitek behar eta Narbartek ereman zuen lenbiziko saria.

Oreja eta Aldaz ziren beste izen ezagunak; eta Goikoetxea, amazapi urteko bertsolari berria. Gure festaren iraupena gazte auetan dago eta gure ongi-etorri oberena Goikoetxea gazteari.

Eta Lakuntza, zer? Naparroari eta Euskalerrriari gure arteko gertaeretat kontu ematekotan esango digu, Lakuntza epeltxo gertatu zitzaigula iruzki beroko egun artan.

Kanpotarrak ikusi arte bertsolari txapelketa bazela etzakiten jendeak ikusi genituen Lakuntzan. Gero, sarrera garestitxo bazen, ez bazen...; eta soinua, gañera, garai berean —ori ere ba da!—, an ikusiko zintuen barne ura erdi beteta.

Beste zerbait berotuko duen iruzkiaren beharretan ote gera, gaurko egunean, Euskalerrri maitean!!

Erriko bestan garaia



Bestak errian. Etxetako aferak: dena garbi, erosi eta bururatzen da. Etxekoandreak janaritegia geitu ta emendatzen du bestetara datozen mairkideak esku zabalki eta oparotasunez. oiture denez, jai eta serbitu nai dituelakoz.

Kaletan, garbi-garbiak, giro atsengingarria sumatzen da. Erritarrek prestaketa lanei gogo onez eutsi, bertako gertaerik onenen eta aundiaren baita. Zaindaria Saindua, erriko Begiratzaleak, gizaseme, etxe, zelai, soro, belar, abere eta tresnak biotzbiguneko aurpegiz bedeinkatzen ditu. Erriak, ordez, agurtu eta ohoratzen du bere esker-erakusmenik maitekorrenaz? Dantzak eta Eliz-eginbideak.

Nafar Mendiko errietan bestak ospatzeko era auek oraindik ikusten dira: Eskil-joaldiak, txistu, Aiuntamenduaren ibillera, bere banderarekin, ezpatadantzariak eta Parrokiko apezak aurrean doazela, eta atzean beste gañerako Agintariak, erritarrak, Erriko etxetik Eliza Nagusira lenen Meza Nagusia entzuteko eta ondorean Goi-goieneko Zaindariaren aintziñeko ibilkundera joateko.

Prozesio ederra bukaturik Erriko Plazan Ezpatadantzariak Bandera-arbola, Alkate-soñua, Zubigañeko eta Ziarkako dantzak aritzen dira. Arratsaldean: Bezperak, eta gero Plazan bildu den ienden aurrean: Mutildantza, eskudantza, beste erriko euskal dantzak, suzkotziak...

Baño bai ta ere gaurko denborari doazkon «beste alako gauza batzuk», dena esan bear, izaten dira: arrigarrizko eite berdiñeko soñuak, edozein tokian entzun ditezkenak, ala nola Parisen, nola Cochinchinan, emen ere ikusten dira: autobusak, altabozak, erbestetako itxurazko iendeak...

Mundu guziko iostamodu au ikusi dezagun gaurko modukera bezela bakarrikan, baño ez dugu utzi bear gure aintziñeko oiturak itzulikatzer ta amaitzera, Lesakarenak ala Zildozenak direla.

Gure Bestak alaxe ikusten ez dituen erritar ala kanpotar erririk erri dabillen turista ikusle utsa izan diteke, baño guri bere jaioterriari dagokion maitasuna galdu duela erratan digu argiki. Errimiña sentitzen duena, berri, Jaungoikoaren Graziaren mugarigabeko lurrezko desberdintasunean zintzo eta leiatsu bere «errikotasunari» beti jarraitzen dio.

YOANE MEHEA

(Iruñako «Diario de Navarra» egunerokoaren «Nafar izkuntzaren orria» delakoan argitaratua)



Maria Juana Ganboa il zaigu

Joan den Garagarriaren 27'an, Iruñetik Goizuetarako bidean zertorrela automobilarekin erorita, erreka zurronean ilda arkitu zuten Juanita Ganboa. Jaunarekin betiko pakean bizi dala ziur gaude.

Buru argi-argia eta biotz zabala eman zizkion Jaungoikoak. Bere buruaren argitasun arrigarria ongi ezaguna zan Zaragoza aldean ikastaro garaian. Kimika eta Farmazia berarekin ikasi zutenen artean argitasun ortaz arritu ziranak bat baño geiago izan ziran. Jaungoikoak eman zizkion argitasun oiek lakaripean gordeta eduki gabe, lagun urkoaren onerako erabili zituan beti.

Bere biotzaren zabaltasunari buruz, ezagutu zutenei galdetu beretik ez dago. Inguru t'urrutietako gora bera ta gertakizunak bere biotz zabalaren barruan leku arkitzen zuten.

Euskera ta Euskalerriko oiturentzako maitasun berexi bat izan zuan. Euskera ta Euskalerrriaren alde etzan aspertzen lanean.

Ta Goizueta bere txokoari zion maitasunaz zer esan? Maitasuna eginkizunetan agertzen bada, ongi aski agertu zuan Juanitak Goizuetari zion maitasuna. Amaika buruaste ta kezka sortu bazizkion ere maitasun orrek, etzuan sekulan atzera egin. Zuzenbidean jokatzuz aurrera egin zuan beti. Baserri eta erriko aurrerapen eta etorkizunaren alde amaika lan eginda joan zaigu mundu ontatik. Kristau zuzen eta osorik baldin bada, zuzena eta osoa izan zan Juanita. Mirabe zintzo eta zuzena, «atoz Nigana», esan dio orain Jaunak.

Buru argi-argikoa zalakotz, oso urrutira ikusten zituan gauzak eta orregatik berak nai zuan Goizueta olakoxea zan: kristau pake eta anaitasunez bete... oitura zarrak eta izkuntza galdu gabe aurrerapenez bete... Goizueta zarraren usaia galdu gabeko Goizueta berritua eta apandua.

Emen lurrean egin zituan amets oiek betetzen lagunduko al digu zerutik.

Bere illobirako itzik egokienak auetxek lirake nere ustez:

«On egiñaz igaro zuan bizia... Orain saritzat izan dezala Zerua».

SATURNINO MUGICA

Guk Diputazioaren "Principe de Viana" Ikasgoko euskal ille-ko ontan lan egiten dugunok goizuetar euskaltzale sutsu eta emakume ongillari, beti euskerari laguntza emateko prest zagonari, al-dizkari au ongi ezagutua zeukanari, azken numeroan "Erriz-erri" sailarako bere Goizueta maiteari buruzko idazlan txiki bat bialdu zigunari, ezgaitetze ixillean egon berari gure oroitzapen umilla eskeini gabe.

Ganboa Loiarte andereño zenaren alde gure otaitz bero-beroak Zeruetara eldu ditezela, eta bere anaia eta beste gañerako senide guziet gure doluñik sentikorrenak artu ditzatela. Goian bego.



LEIZA

Leiza, oian tarteko txoko polit batean arkitzen da. Iruñetik Donostirako bide erdian. Erri euskalduna. Bere izkuntza zarraren eta euskaldunen oitura zoragarrien maitazale gogotxua ta eustale bizkorra. Bere inguruko mendiak eun ta amabi baserri apainduak. Bizibide nagusi Nekazaritza dute. Erri gozoa ta paketsua benetan.

Egun batez buru argiko ta biotz zabalako gizon batzuz jeki dira erritarren artetik. Zorioneko asmo bikañak jaino dira beren biotzetan. Gogo bizi batek indartu ditu. Beren erria era guzietako aurrerapenez beterik ikusi nai dute. Ortarako lendabizi erritarrentzat bizitegi txukun bat jarri bearra dagola ezagutu dute.

Erriko kale guziak garbitu, konpondu ta txukundu dira. Baserrietara ta oianetara bide zabalak eta ederrak ideki dira. Ez dira aztu, guxia gorik ere, beren animen alde aurrerapen ederrak jaritzeaz. Elz bideak garbitu ta erriko Elz Nagusia ikusgarritzko eran apaindu dute.

EZIN BIZIA

Lanaldi zoragarri au egin ondoren kezka aundi bat sortu da erritarren artean. Naitabe saminiarekin ikusi dute erriko gazteak sasorik onenean, mutil jator eta mardulak, langille zinzo eta burutsuak beren txoko polit eta ederra beren oitura garbiak, beren izkuntza maitagarria, adiskide ta etxe-koak utzi ta urrutiko lan tokietara abiatzen asi direla, aurrerako bizi bidea billatu naiez. Famili osoak, etxeak, lurak, gurasoengandik artutako lanak, denak utzi ta mundu zabalean leitzarrak barratzen asi dira. Arrizko etxe galantak utsik gelditzen asi dira. Ezin izkuta aribateko naigabea sortu da errian beren seme maitteak alde egiten ikustean. Ez diete negarrez gelditu. Negar malkoak ur atsegin eta janari goxo biurtu bear dira. Nola? Erri belean lan toki ta irabaz bide jartzeko antea egiñez.


LAN-TOKIA: PAPELERA

Leizako erriak eskeñi du lurra, ta batez ere bere semeak lanerako gogotxuak, gizon, mutil eta neskatx beren oianetako aritzak baño azkarrakoak, mendi tontorretako edurra baño argiakoak, alor-sorotako landare baño eztiakoak. Laister azaldu ziran leitzarren asmoak zinetan artu zituztenak. Orain zazpi urte asi zan Leizako Papeleleren lendabiziko pabellona edo lan toki eginen. Leitzarrak berak ziran lendabizitik lanari gogor ekin ziotenak. Geroztik lan-tokia gelditu gabe zabaldu joan da. Gaur 500 langille pasa ari dira bere barenean. Leizako semeak, nai izan duten guziak sartzeko bidea izan du dute. Erritarrek aski ez izatearekin, nagusiak ez dira langille bila urrutira joan, baizik inguruko euskal errietan nai dun guzari lana ta irabazbidea eskeñi dute. Langilleak etortzeko ta joateko bidea jarri diote. Legasatik, Goizuetatik, Beruetetik, Aresotik eta Tolosatik ateratzen dira autobusak bideko erri guzietako langilleak artuz eta lanaldi ondorean beren etxetara eramanez. Autobusetan etortzen diranak Leizako Papelelan lan egitera 230 çira.

ETXE BERRIAK

Orain dela zazpi urte etxeak utsi' gelditzen ari ziran. Milla ta bost eun jende bizi ziran Leizan, gaur berriz bi millatik gora. Erriaren azitzeak berekin errirako estutasun batzu ekarri zituan. Estutasun oiek askatzeko ta beste aurrera bide batzuk jartzeko Guraso Kato'ikoan Elkartasuna eraiki zan (Asociación Católica de Padres de Familia) deitzen dana. Beren billeratan ikusi zuten bear zirela bizitze berriak, gazte ta zar guzientzako billera toki atsegingarri bat, aur eta gazteentzako ikastola onak eta era guzietakoak. Joan den bi urte auean 150 bizitze berri egin dira. Billera toki eder bat egiñik dago. "Oialde" bere izena. Ostatu, sukaldea, bi jantoki, liburutegia ta billera toki apaña ta zabala ditu. **IKASTOLAK**

Landare onak zañak lur mamitsuan ongi sartuak izan bear ditu. Erribateko aurrerapena ta aberastasuna billatzeko ikastola mamitsuan zañak ongi itsasiak izan bear ditu. Asmo bikaña ta zoragarria auxe Leizan egun batez artu zana. Aurrera eramateko elkartasun aundia ta azkarra eskatzon zuan asmo onek. Ortarako Parro-



kiak, Ayuntamientoak, Papelerak eta Gurasoen Elkartasunak bat egin zuten. Denen artean "AMAZABAL" deitzen dan Elkartasuna eraiki dute ta lanari gogoz ekin. Ona emen beren eginkizunak: Leizako errian 375 aur daude ikastolatan denak leitzarrak. Oietatik 140 baserriarrak dira. Baserrietako aurrak bi autobusek eguneroko biltzen dituzte ta ekartzen ikastolera. Bazkaltzea errian ematen za'ote, ortarako antolatutako jan tokian eta atsaldean berriz autobusetan eramaten dira beren etxetara. Bazkaria bost peseta ordaintzen du aur bakoitzak. Autobusa ezer ez.

Ama'au urtetatik gorako mutikoentzat Ikastola Profesionalak egin dira. Iru urte irauten dute ikastola auk eta 90 mutiko artzen ditu. Nafarroako Diputazioak ontzat eman du ta bere gain artu. Datorren udazkenean asiko da lendabiziko ikas-aldia. Ikastola Profesionalak ez dira Leizako bakarririk egin, baizik inguruko erri guzientzako, guzienez Papelerara lanera eldu diran erritar guzientzako. Erriz kampo etorriko diran guzientzako bizitegi eder bat ere egin da. Berrogei ta amar oatze baditu. Josta leku bikañak ere jartzen ari dira. Ama'au urtetatik amazapki artekoak eskai ederra daukazute. Berriak galdetu ta ikastola oietara etortzeko erabakiar artu. Ateak zabalik daude nai duzutenentzat.

NEKAZARIAK

Kezka samin bat barren barrenaraño sarturik daukagu. Inola ere ezin izkutatu. Gure lur alderdia berez nekazari lekua da. Geienak nekazalgotik bizi dira. Orregatik nekazari semeak ez genezazken inola ere baztertu ta azturik utzi. Nekazariak gizonen aldetik oraindik oso laguntza gutxi artu du. Bere nekazaria gizon apa'la ta sufritua da, gorputzez gogorra ta mardula, animez aberatsa, sinimen sendokoa. Orregatik beti Jaungoikoagan itzaropen aundia dauka. Bere gisa lan egin eta bizitza aurrera atera bear izan du gizonen aldetik ikasbide aundirik izan ez dualakoz. Era guzietako laguntzak eta ikastolak upatuko ditugu baña non daude nekazaritzako ikastolak? Joan den bi urte auetan gai onen gañean amaika asmaketa, itzaldi ta ekiñaldi egin dira. Ondarrean datorren udazkenean nekazari sementzako ikastola apañak idikitza goaz. Maixu bereziak izango dituzte, Aurten ama'au urtetatik gorakoak, nekazari semeak edo nekazangoan jokatzeko asmoa dutenak ikastola oietara etorri ditezke. Ikastola onek bi ne gu iraungo ditu. Datorren uretan neskatzentzako ere asiko dira. Gaurko egunean alderdi guzietatik begiratuz nekazarientzako ikasto-

la auk oso bearrezkoak ikusten ditugu. Ogei urtez gorakoentzako urtearen buruan noizean bein egun bateko erakustaldiak antolatuko dira.

Nekazariak! eskai ederra zuentzako ta zuen semeentzako batez ere. Aurtengo udan semeak ikastol oietara bialtzeko erabakia artu. Etzazue sekula damutuko. Seme alabei eskeñi dezakiokuzuen aurrerapen eta saririk baliosuena da. **OIALDE**



IRUÑA

NAFARROAKO UNIBERSIDAEAREN AGINTARI BERRIA

Joan den Epailaren 27 ean On Jose Maria Albareda Jaun Agurria il zenetik Nafarroako Ikastetxe Nagusiaren Erretorearen alka utsal zegoen. "Opus Dei" delakoaren Zuzendari den Eskriba Jaun Agurriari, Aita Sainduaren baimenarekin, On Frantzisko Pons Piedrafita Nafar Unibersidadearen Erretorea izendatu zuen. Badu bada berriro gure Ikastetxe nagusiak Agintari berria. On Frantzisko Huescan sortu zan, Barzelonan Unibersidadean Irakarle egon da, eta Albareda zenaren ikasle izan zan.

Izendapen onek uste dugu Nafarroako Unibersidadearen onez izanen dela, eta emendikan gure agurrik itzalgarrienak Erretore berriari bialtzen dizk'ogu. Ongi etorri izan dedilla gure Erresuma zaharrari.

AITA FELIPE MURIETAKOAZANARI

Aita Murietako Felipe Agurria Uztaroaren 13 egunean gure lurretik Zeruetara joan zitzaigun. Minbizi batek iru urtez txarki auldu eta eritua, sainduki bere biza Alguztidunaren eskuetan jarri zuen.

Nafarroako Murieta errian (Lizarra, edo Estella lurraldean dagona) sortua, Euskalerriri berebiziko maitasuna segituki eta etengabean bere 69 urteko bizi guzian agirian adierazi zuen.

Euskalerriko izkuntzaren naiak bultzatua euskeraz ikasi zuen eta euskaldun berri sutsu eta jatorra izan zan.

"Umien Deia" izenezko umien euskal aldizkaria sortu zuen. Gure erririk-errizko ibillaldietan euskal-napar umiei euskerazko esanietara gurekin zetorren.

Bere jaioterria ain maite zuen Aita Felipe Murietakoak Zeruetatik lagun eta indartu gaiztala gure euskeraren aldeko lanak fruitu onez aurrera eramateko.

NEKAZARITZA ETA ABEREAK.

Asitako gure lanari jarraituz, «Príncipe de Viana» illerokoan eman diguen baztortxoan, agertzea goaz gaur zer garrantzi aundikoa dan ikastea, bizi bide guzientzako, zerbait aurreratu nai baldin bada, auzokoan mendean ez gelditzekotan.

Ez dago esan bearrik, apaiz jaun bat egiteko, bear dala ikasi, gutxi-na amaika edo amabi urtez; etxegille, letragizon, sendagilea, edozein ola edo dirueteoko zuzendari izateko; eta beratxegoko langilleak artuak izateko olatan, gaurko gazteak, aurretik bear dute ikasi. Zenbat Ikastol jarri dira azken urte otan, olatarako mutil-neskatxak gertutzeko; batzuek buruz eta idaztxoxtorrez beren lana beteaz, besteak mallu, karraka ta beste esku tramankuluakin ariketak egiñaz, baño danak, bi edo iru urte aurretik ikastolan ibilliaz, ba bestela ez bai dago inongo lantegian sartzerik.

Nekazaritza berriz, ¿nola gaude gertuak lanerako? Gure guraso garrien gandik ikusi ta ikasiakin, noski oraindik geienak beñipin. Aintziñako denboratan lan-era aiek ongi zeuden, ez bai ziran tentelak gure aurrerakoak, ez ordea gaur. Lenago zurgin ikasteko urte askoren burura izaten zan, pixkaka lanean ari zala besten artean; gaur, esan degun bezala, Ikastolatan aurretik bere ariketak eginda sartzen dira olatan ta abar.

Edozein olatako langilleak, nekazarien lanan aldean, oso erraxak dituzte, ala uste ez izan arren. Nagusi ordekoak agindua egin besterik ez dauka olan geienean, eta askotan lan jakia, indarkai bat zainduaz, burni zatiak karraskatuaz, egindako tramankuluak zenbatuaz, bazter bat garbituaz ta abar. Egunero lan bera. Bai baña nekazariak, bear du izan gaurko egunetan gai aunitzen begiratzalle. Bera baita nagusi, txanponak arriskotan jartzen dituna, lanan zuzendari, saldu-erositan ernatu bear duna, lurlantze, azi beretxetan gañean egon bear duna, abergorrien zaintzalle, askotan albaiteo egiñaz, deitua etortzen ez delakoz bear dan garaierako. Eta ok aski ez dirala, lana egin bear du bere esku ta oñakin, buruak zuzendu ta onartu diona aurrera eramateko.

Emendik igartzen aal zaio, gertakizun geiago agertu gabe, aurretik esan degun garrantzi aundi ori zinezkua dala, gure baso-etxetan bizi bear duentzako. Bide eta era berrien gora-berak, ikasi gabe ez dira jakingo, eta askotan ikasita ere izaten dira naiako aztarrike ikasia egitetan jartzen. Onek esan nai du, ikasi bear dala, bai ustari (idaztietatik) bai lan egiñaz denbora berean lurretan, belarditan, ukullutan... Askoi bai dira, ustari utsaz ikasi dutenak, oztopoka dijozenak beren jakintza agertzen asten diranean egitetan.

Luzatzen ari gera geiegi, ba toki neurtua degu illerokoan ta gaurko aski esan bear. Ordea adierazi nai degu, esana bai dago ere aurretik illeroko ontan bertan, beste idazle baten gatik, gure gazteak bialdu bear dituzte gure nekazariak, aurki irikitza doazten Ikastolera. Baso-etxean bizi bear duten gizon ta emakumeak, ez ditezke gelditu gutxiago ikasita, beste edozein lanerako gertutzen diran seme-alabak baño; erri aundietako langilleak ainbat etsai arkituko bai dituzte bidean, eta ok bear ditugu gauritu.

JOSEBA IMANOL

ULTZAMA

ULTZAMAKO BALLEAREN BATZAR-TOKIAN

Baionako "Euskaltzaien Biltzerra" eta Iruñeko "Euskalerriarren Adiskideak" delako Elkarteak antolatua, Ultzamako Balleak eta Iruñako "Caja de Ahorros Municipal" —ak lagunduak Euskal eta Europatar Ikastaldiak izango dira Agorillaren 28 egunetik Buruileko (Urrilla) 4 eguneraño.

Ikasta'di auk Iruñean b'izi den arabatar Angel Diaz de Tuesta jauna zuzendaritzat izango dute. Jaun au "Euskal Ikasaien Akademia" delakoaren laguna da.

Ultzamako Gerendain erriko Ama Mixiolariaren konbentuan Ikastaldietako ikasleek ostatua izango dute.

"Euskaltzaien Biltzerra" eta Iruñeko "Euskalerriarren Adiskideak" E'kartei gure goresmenik aundienak.

NAFARROA-KO BIZITZA.

Leireko pralletegi zaarrak, Nafarro zarreko bizitzan zer ikusteko aundia izan zuala esan bearrik ez dago. Ikaskizun lanetan eta erlijio gaietan ez ezik, politikako artu-emanetan ere ikusteko aundia izan zuan Nafarroako errege asko, erabaki latz eta neketsuak artu aurretik, Leireko pralletegira, argitasun eta laguntza eske joan oi ziran.

Leireko bakardadetik ama'ka santu eta jakintsu sortu ziran. Ango pralletegi eta prallei buruz, erri artean amaika gertakizun eta istori, agotik agora igaro dira gure egunetaraño. Artako negusienetako bat Birila izeneko Abade santuari gertatutakoa da. Gurasoengandik semeetaraño igaroz, gureganaño iritxi dana auxe da:

Pralletegi ortan aspaldi-aspaldian, santutasun mallan oso gora igotako Birila izeneko Abade edo pralle-nagusi bat ba omen zan. Gizon onek, oso santu izanarren, kezka bat omen zeukan bere biotz barruan. Betikotasun guztian aspertu gabe zeruan nola egon ote zit'kean ez'n omen zuan konprenditu. Kezka au buruan zerabi'kila, pake billa edo, mendiko bakardadera atera omen zan.

Maiz ura edaten zuan iturri baten ondoan exerita zegolarik, inoiz entzun etzuan bezalako txori-kanta bat entzun omen zuan. Txoritxoaren kantaz lilluratuta, txoratuta gelditu omen zan gure prallea. Entzun

ta entzun aspertu ez'nik egon omen zan Birila eta txoritxoak bukatu zuanean larrez ta sasiz inguratua arkitu zan. Pralletegira itzuli bearko zuelata, altxatu zanean, bidea czin billaturik arkitu zan. Nola edo ala zuzendu zan baño pralletegira irixtean oraindik gauz arrigarriagoa gertatu zitzaion. Ez berak beste pralleak eta ez beste pralleak bera, alkar ez omen zuten ezagutzen.

Pralletegiko liburu zaarrak ikusten asita, irureun urtez aurretik, Birila izeneko pralle nagusi bat izan omen zala ikusi zuten, baño liburuak ziotenez, pralle ori egun batez basora aterata, etzan geiago komentura itzuli. Baso-piztiak jana izango zan ustean gelditu ziran beste pralleak.

Orduan konturatu zan Birila, txori-kantarekin gertatutakoa, buruan zebiltzkin kezka kentzeko Jainkoak egindako mirari bat izan zala. Orduan konturatu zan, txori bati entzunaz, irureun urte ain laxter igaro ba-ziran, Jainkoa ikusiaz eta aspertu gabe nola igaroko dan betikotasuna.

Jainkoari eskerrak emanaz eta azken sakramentuak artu ondorean, andik bi egunera il omen zan Birila santua.

Gaurko egunean ere, pralletegi inguruan ikusi diteke, irureun urtez, txori-kanta entzunaz Birila santua egon zan iturria.

Irudimena... Egia... Erriki egia dala dio! "AUAAMENDI"



PEDRO DE AXULAR (V)

GVERO LIBURUAK GORROTO eta ASERREAZ

Euskera-ra itzulikatzeke oldeaz eta moldeaz dio Axularrek: «Ez eta, eztitut beti ere eskritura saindua eta doktoren erranak »ere, hitzez hitz euskara-ra bihurtzen. Zeren euskara eta bertze »hizkuntzak diferent baitira. Ordea ezta ez handik segitzen gaixtoago »dela euskara».

Nafar idazlariak metaforak erabiltzen ditu, baiña orenen gaiñetik synonimiak; iru-lau izen lerroan ematen ditu gauza bat adi-arzteko; izen horietatik asko erdaratik direla aitortu dezagun lañoki.

Baiña itz mordollo horiek barkakizun direla deritzait, Axularren liburuaren erretasuna eta atsegiña, horretatik eldu delako; irakur-zaille bakoitzak atxematen duelako beti, bere belarriak ezaguna duen izena edo itza; eta banago etzueneg apropos egin Axularrek. Erdarrikako itzen ondoan beti aurkitzen dugulakotz itz garbia, eta bai ulerkaitza ere, hunen laguntza ondoan ezpalego.

Huna Axular; «Nola ardia otsoaren ikusteaz, lazten, larritzen, »asaldatzen, izitzen eta ikaritzen baita; hala egiten gara gu ere »etsaiarekin batzeaz eta inontrateaz».

«Gero» liburua, humanista bete baten (gizatiar baten, esate baterako) kumea da; garai ayetan, aro eta sasoi horretan ziren oraiño; greko eta erromanoen idurira izkiribatzen zuten, eta Axularren liburutik gizatasuna dario alde guztietarik.

Axularrek oraiño klasikoak imitatzen ditu, eta idazlari ayen edergailuak onesten, eta ayen birtuteak laudorioz aipatzen, pagano-enak izanik ere, Renacimiento-aro edo Berpizkunde-aro delakoaren seme egiazko batek bezala.

Goazen berriz Axularrengana eta gorrotoaz nola mintzo den dakusagun: «Haserretu behar denean ez haserretzea, sentikortu behar »denean ez sentikortzea, beti bat, beti uli, lolo, malba eta bare izai-»tea, ezteustasuna da eta ez gizontasuna. Begiratu behar da sobera »haserretetik, alde egin behar zaika hirari, begia eduki behar zaika »kolerari eta ez, prestuki eta onestki bizitzea gatik bera gatik, »baini bai gorputzeko osasuna gatik ere.

»Zeren haserretasunak, mendekatu nahiak, barreneko hegigoak, »irakidurak, hudigoak, gorrotuak, korromioak eta herrak, arimari eta »gorputzari egiten deraue kalte, bieñ senti arazitzen deraue, biak »eritzeintu.

»Eta halatan presuna hirosak, erreak, eta haserrekorrak ez ohi du »begi orde anitz higatzen eta ez komunzki bere umeen umirik ere »bere ingurunean ikusten.

»Zeren bere barreneko koleraren suak eta irakinak, errai guz-»tiak erratzen, elkortzen eta idortzen baiterautza. Eta hala ikusiko »duzu bere egitez iauzkor eta mendekos diren presunak, baldin bere-»hala bere desiren arauaz mendekatzen ezpadira, egosten eta de-»segitzen direla.

»Eta baldin halaber mendekatzera eta eskuen odolztatza gerta »badakie, gero ondolik dolutuak eta atsekabezatuak dabiltzala. Ha-»lako suertez, ezen, nola nahi den dela, naiz mendekaturik eta naiz »mendekatu gabe, naiz bere gogoa historik eta naiz histu gabe, »ezta halakoentzat, damurik, atsekaberik eta asaldurik baizen».

Hunaraño AXULARR. Urdazubiar idazlari haundiak bere liburuan, lizunkeriaz dakarrenaren zati bat emanen dugu, agian, ondoko batean.

A. APAT - ETXEBARNE



EUSKAL AKADEMIAREN (EUSKALTZAINDIA) MEZUAK

MANUEL MACHAIN «XENPELAR» SARIA IRABAZLE

Euskaltzaindiak (Euskal Akademia) izendatu zen Juraduak bertsolarien gisan ari diranen arteko «Xenpelar» Saria Manuel Matxaini lenbiziko premia emateko iritzia artu zuen, Aita Salvatore Mitxelena zenari eskeñi zizkion bertsoengatik bi milla pezeta arturik; bigarren premia Inocencio Oleari, milla pezetekin, eiztariei ipiñi zizkion bertsoengatik; irugarrena Jesus Lete «Ibaiertz» ezagunari, bere astoari jarritako bertsoengatik, eta laugarrena Guillermo Albizuri bildotx bati paratutakoengatik.

Usurbillen, Maiatzaren 22 egunean, Udarregi bertsolari aundi zenaren omenaldian sari auek banatu ziran.

1966 URTEKO «XENPELAR» SARIAREN DEIA

Gipuzkoako «Caja de Ahorros» delakoak bost milla pezetako sari bat eskeñi du urteoro emateko bertsolarien maillean ari diranentzako, Euskal Akademiaren ardurapean. Ona emen Saria onen oiñarriak:

a) Sariak izango dira: 1. Bi milla pezeta; 2. Milla pezeta; 2. Milla ta bosteun pezeta; 3. Milla pezeta; 4. Bosteun pezeta.

b) Urtearen barruan argitaratutako bertso-paperik onenak sarituko dira. Bertso-paper inprimatuaren sei ale bialdu bear dira Euskal Akademiara (Ribera - 6 - Bilbao). Bialtzeko epea 1966, Azaroaren 20 ean bukatzen da. Aldizkarietan agertutako bertso berriak ere, sei ale bialtzen baldin bialtuzte, Sari ontan onartuko dira.

c) Gaia nai dena (libro).

d) Bertso-papera argitaratzen denean, eta zein den bertsolarien izena jakiteko, «Bertso berriak olako edo alako jarriak», edo beste orrelako zerbait izkribitu bear da aspaldiko oiturari jarraituaz.

1966 URTEKO «LIZARDI» POESIA-SARIAREN DEIA


Poesia-sari au Olerkari edo Itzneurleri klasean ari diranentzako antolatzten da. Oiñarriak:

a) Bost milla pezeta sari bat emango da banandu edo zatikatu eziñezkoa izanena dana.

b) Bialtzen diren poesia-lanak nai den bezelako luzeera eta gaia izan dezakete eta bertsoan euskeraz egiñak izan bear dute.

c) Lanak Euskal Akademiara (Ribera - 6 - Bilbao) bialdu bear dira, 1966, Azaroaren 20 eguna baño len. Ezaupide batekin izenpetu edo siñatu bear dira, eta ezaupidearen giltza sobre itxi batean bialdu.

KIROLAK



Iruñako Zezen-platzan euskal yokuen agerketa.

Aurten Iruñeko Sanferminetan eskual yostetak ere izan ditugu. Zezen plazan arizanak dire euskaldun aizkolari, lasterkari eta arri-goratzale oberenak e'karrekin zeingeiagoka.

Besta gisa untan moldatu zuten:

Agerre II azpeitiar arrigotzaleak 150 kiloko arri zilindroa bi minutoz zortzi aldiz goratu zuen bizkarreraño. Gero Arbeldi gipuzkoarra ta Arruizko Txikito, aizkor'ian ta lasterka aritu ziren, lehenik aizkor'ian launa onbor 45 ontzako moztu eta ondolik lau ki'ometro lasterka, biek batean asi ta nork lan

guzia lasterrago akitu. Arbeldi'k aizkorian bentaja puska bat artu zuen lau onborrak 6,18 minututan eg'nik. Txikitok lan ori bera 7,42 m. tan. Arruiztarrak onborrak akitu orduko gipuzkoarrak lasterka 350 metro eginak zituen, gero Txikito eginahal guzian bentaja ori yanez yanez ari zen bainan Arbeldi erne zagon eta lau kilometroak burutu zituen Txikitok arrapatu gabe, lan guzia 22,21 minututan eginik. Arruiztarrak 22,47 m. tan egin zuen. Gero ahari-yokoa ere egin zuten Leiza'ko ta Erasun'go ahari bizkorrenak zarpaka aritu zirela, 31 ukaldi eman zituztelarik. Azkenean berriz aizkorian bidenaz-

ka, Berekoetxea ta Latasa, Polipaso ta Ast'biaren kontra, bikote bakoitzak eta berek nai zutelarik aldizkatuz zortzi kana-erdiko eta zortzi 60 ontzako moztu bearrak zituztela. Asmenta-asmentatik Berekoetxeak ta Latasa'k abantaila arturik eta aintzinaldia utzi gabe ola ola lan guz'a burutu artio yokoa irabazirik. Irabaztaleek 16 onborrak, 40,12 minututan moztu zituzten eta galtzaleek lan ori bera 41,02 m. tan. Yende asko plazan eta yoko gustagarriak.

PILOTA

Baztan'go eskuzko pilota txapelketa bururatu da eta Erratzu'ko «Etxelebert» eko pilota lekuan yoen den Uztaillaren 3'an azken partidak yokatu ziren.

Bigarren mallako pilotarietan, Soule aizkundarra ta Perez gorritiarr Agerre ta Fagoaga erratzuaren kontra aritu ziren. Soule ta Perez'ek irabazi zuten 22-14, bigarren mallako txapela bereganatuz Lebiziko mallako finalean, Ospital erratzuarra ta Ruiz de Larrinaga aizkundarra alde batetik eta Huar-te narbartearra ta Iñigo iturendarra bertetik, beren indarrak negurtu zituzten denak txapela erdietsi bearrez lau pilotari'ek ahal guziak eginiez. Partida arras atakatu. Izan zen, asmentatik Huar-te ta Iñigo'k aintzinaldia artu eta ol-o'a 16 garren tantoraño ortan ados gelditu zirelarik, gero gauzak itzilipurdikatu ziren eta oraikoa Ospital ta Ruiz'ek aintzinaldia artu eta azkenean auzia beretu 22-17.

Ospital ta Ruiz de Larrinaga Baztan'go Txapeldunnak. Zorionak.



Iruñeko «Euskal Ikastola»



Iruñeko «Euskalerraren Adiskideak» Elkartek irikia, gure Iruña zaharrean bada umiei euskeraz mintzatzen erakusteko eskola bat.

Pasatu den ikastaroan lenengo aldiz zabaldu zan eta bere maisua, Gorririko Mikela Gastesi andreñoa, oso trebe eta gai atera zaigu lan ontan.

Garagarrillaren 25 egunean, Iruñeko «Iru Erregeak» Ostatu bikaiñean, Euskal Eskolaren urte ontako ikastaldiaren bukaera-besta izan zan.

Gurasoen aurrean Mikela Gastesi andreñoak 1965-1966 ikastaroan umiek ikasitakoen azalketa egin zuen. Zorionak denei, bereziki «Euskalerraren Adiskideak» Elkarteari eta Mikela Gastesi andreñoari.

Si desea recibir en su casa esta publicación, exclusivamente dentro de Navarra, envíe este Boletín a: INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA, Calle Ansoleaga, 10. PAMPLONA.

BOLETIN DE INSCRIPCION

Don
con domicilio en la localidad de
Calle N.º
desea recibir a domicilio y gratuitamente el Suplemento «PRINCIPE DE VIANA».

FILOSOFIA

Bein batean juntatu zian bi lagun eta bat eldu zan eskolatik.

Esan zean besteak:
—Ik zer ikasten dok?
—Filosofia —erantzun zion.
—Tontua! Filosofia baino obia dok ollo-zopia!

Milagros Celaya, 11 urte
(Urdiain)

GIZON ALFERRA

Andra batek zukan gizon bat alferra eta aldi batean andrean esan zion:

—I, ekarzak egurra. Eta gizonak artu zuen idi paria eta fan zan basora. Ikusi zuen arbola batien arrama bat oso ona. Zukan soka bat aundia gurdien eta ez nekatzeke bota zuen soka ura arrama batera. Punta artu ta idiari esan zean, aida.

Arrama arta(ra) iyo zenien ideie esan zien gelditzeko eta idiek segitu zain aurrea. Arbola puntatik bota zan eta fan zan etxea.

Andrean esan zean:
—Baldikak egurra?
—Bai zera! Arbola puntatik bota naiz ta!

Juan José Urrestarazu,
11 urte (1966)
(Urdiain)

SORRAK

Juntatu zien bi sor. Batek esan zion besteai:

—Eh!! Noa zazi, arrantza!
Besteak esan zion:
—Ez; arrantzara nua.
Eta lenbizikoak orduan:
—Ah! Uste nuen arrantzara zina-tzila!

Demetrio Irigoyen,
10 urte (1966)
(Urdiain)